

NUTRIZIO FUNTZIOA: DIGESTIO-APARATUA

1.- Esan ondoko esaldiak egia (E) edo gezurra (G) diren:

- Izaki bizidunak zelulaz osatuta daude ☐
- Animaliak zelulaz osatuta daude ☐
- Landareak zelulaz osatuta daude ☐
- Ehuna mota bereko zelulez osatuta dago ☐
- Ehunak organo desberdinez osatuta daude ☐

2.- Lotu bizi-funtzioak bere zereginarekin:

Nutrizioa	Izaki bizidunak bere inguruan gertatzen denari erantzuten diote
Harremana	Izaki bizidunek beste izaki bizidun batzuk lortzen dituzte
Ugalketa	Izaki bizidunek energia eta materialak lortzen dituzte


3.- Esan aparatu edo sistema bakoitza zer bizi-funtzioan hartzen duen parte: nutrizioa (1), harremana (2) edo ugalketa (3)

Digestio-aparatua ☐	Ugaltze-aparatua ☐
Zentzumenak ☐	Zirkulazio aparatua ☐
Arnas aparatua ☐	Nerbio-sistema ☐
Iraitz-aparatua ☐	Lokomozio-aparatua ☐

4.- Lotu zutabeak:

Organoa	Aparatua edo sistema
Urdaila •	• Zirkulazio-aparatua •
Garuna •	• Ugaltze-aparatua •
Bihotza •	• Digestio-aparatua •
Birika •	• Lokomozio-aparatua •
Bagina •	• Nerbio-sistema •
Izterrezurra •	• Iraitz-aparatua •
Giltzurruna •	• Arnas aparatua •

5.- Idatzi digestio-aparatuaren organoak dagokien tokietan:



6.- Nola deitzen dira digestioaren fase hauek?

Mantenugaiak odolera pasatzen dira

Elikagai-hondarrak kanporatzen dira

Elikagaiak mantenugaietan deskonposatzen dira